



"ZAINDUZ" ETXEAN ATSEDEN HARTZEKO PROGRAMAREN BIDEZ MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEI GAUZAZKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2026. EKITALDIRAKO DEIALDIA

Urduñako Udalak, gizarte-zerbitzuen eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arretaren arloan dituen eskumenen esparruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, herritarren gizarte-ongizatea sustatzea eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea du helburu.

Era berean, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eskubidea gauzatzean berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak ezartzen ditu, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema sortuz.

Testuinguru horretan, Urduñako Udalak, Gizarte Ongizateko Arloaren bitartez, familia etxean atsedean hartzeko programa bultzatzen du, profesionalak ez diren zainzaileei laguntzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko.

Oinarri hauen bidez, laguntza gauzazkoak ematea arautzen da, hau da, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxez etxeko arreta puntualeko zerbitzuak ematea, ohiko zainzaileei atsedean hartzeko denbora emateko eta haien gizarte-ongizatea bultzatzeko.

1. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua

1. Oinarri hauen xedea da Urduñako udalerrian bizi diren eta II. eta III. mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonen, etxean familia-atsedeneko zerbitzua emanez, norgehiagoka ez-lehiakorreko erregimenean, gauzazko dirulaguntzak ematea arautzea.
2. Laguntza hauen helburua da profesionalak ez diren zainzaileei laguntzea, haien atsedena erraztuz eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen lagunduz.
3. Oinarri hauen ondorioetarako, etxeko arreta-zerbitzuaren zeharkako prestazioa izango da gauzazko laguntza, zerbitzuaren erakunde esleipendunak emandako zerbitzu-orduekin trukatu daitezkeen baleen bidez.
4. Laguntzak 2026ko ekitaldian erabili beharko dira.

2. artikulua.- Aurrekontu-partida

Oinarri hauetan araututako laguntzak indarreko udal-aurrekontuko 03 2311/22631 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko dira, 15.000 euroko gehieneko zuzkidurarekin.

Laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

3. artikulua.- Onuradunak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten II. edo III. mailako mendekotasun-egoeran dauden pertsonak izan daitezke laguntza hauen onuradun:

- Bizkaiko Foru Aldundiak familia-ingurunean zaintzeko aitortutako prestazio ekonomikoa jasotzea.
- Prestazio hori 2026ko urtarrilaren 1ean aitortua izatea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babesean.

4. artikulua.- Dirulaguntza eskuratzeko eskakizunak

Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona dirulaguntzaren onuradun izan dadin, baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- a) 2026ko urtarrilaren 1ean Urduñako udalerrian erroldatuta egotea eta bertan bizitzea.
- b) 2026ko urtarrilaren 1ean, Bizkaiko Foru Aldundiak II. edo III. mailako mendetasun-egoera aitortua izatea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babesean.
- c) 2026ko urtarrilaren 1ean familia-ingurunean zaintzeko Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako prestazio ekonomikoen onuradun izatea.
- d) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetako baten eraginpean ez egotea.
- e) Urduñako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea.

5. artikulua.- Laguntzaren mota eta intentsitatea

1. Laguntzen helburua da etxez etxeko arreta-orduekin trukatu daitezkeen txartelak ematea, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean mantentzeko eta mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari laguntzeko eta ohiko zaintzailearen atsedena errazteko.

2. Balio bakoitza benetako zerbitzu-orduaren balioidea da (60 minutu).

3. Onuradun bakoitzak urtean gehienez 50 orduko laguntza jaso ahal izango du.

4. Orduen esleipena honako hauek kontuan hartuta egingo da:

- Aurkeztutako eskabideen kopurua, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

- Interesdunen mendekotasun-maila.

5. III. mendetasun-maila duten pertsonak II. maila dutenek baino % 33 ordu gehiago jaso ahal izango dituzte gehienez, betiere ezarritako gehieneko mugaren barruan.

6. Txartelak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, eta eman diren xederako baino ez dira erabiliko.

6. artikulua.- Bateragarritasuna

Deialdi honen helburu diren dirulaguntzak gauzako laguntzak izango direnez, ezin izango dira helburu bera duten beste laguntza eta dirulaguntza batzuekin bateratu.

7. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak

1.- I. Eranskina (eskabidea) eta II. eranskina (hirugarren interesdunen datuak egiaztatzea) behar bezala beteta aurkeztu beharko dira.

2.- Interesdunek aurkezten dituzten agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute.



Beraz, honako haxe adieraziko da I. eranskinean:

- a) Agindu honen babespean eskatutakoaren helburu bererako emandako laguntza guztiak aipatzea.
- b) Eskabidean eta eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan emandako datu guztiak egiazkoak izatea.
- c) Laguntzak lortzeko inolako desgaiuntzaren eraginpean ez egotea.
- d) Urduñako Udalarekiko zerga-betebeharren betearazpena egunean edukitzea.
- e) Dirulaguntzen itzulketagatiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera.
- f) Eskatzaileak behar besteko konpromisoa hartzea, dirulaguntza hau jasotzen duen bitartean eskakizun horiek betetzen jarraitzeko eta, berehala, adierazpen honen datatik aurrera beste administrazio publiko batzuetan edo nazio-mailako edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan eskatzen edota lortzen dituen laguntza guztien berri emateko.

Eskabidea aurkeztean, prozedura honen arauak onartzen dira.

3. Prozedura hau izapidetzeko, honako datu hauek kontsultatuko dira ofizioz:

- a) Biztanleen udal-eroldaren datuak.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiak emandako mendekotasun-mailari buruzko datuak.
- c) Bizkaiko Foru Aldundial familia-inguruneko zainketetarako aitortutako prestazio ekonomikoaren kobrantzari buruzko datuak.

Interesdunak administrazio publikoek egindako datuen edo agirien kontsultaren aurka badaude, I. eranskinean eta, hala badagokio, II. eranskinean horretarako atondutako laukian adierazi beharko dute euren berariazko aurkakotasuna, eta kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Ezarri beharreko arautegiaren arabera beharrezkoa denean, interesdunaren berariazko baimena eskatuko da kontsulta egiteko.

Salbuespenez, zirkunstantziaren batek aipatutako datuak lortzea eragozten badu, interesdunei eskatu ahal izango zaie dagozkien dokumentuak aurkezteko.

8. artikulua.- Eskabideen aurkezpena eta epeak

Deialdia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da, eta eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, oinarri arautzaileak eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, eskabide horiek ezetsi eta izapide gehiago egin gabe artxibatuko dira.



Eskabidea Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez (www.urduna.com/tramites) aurkeztu ahal izango da; edo, aurrez aurre, Udaleko Sarrera Erregistroan (Kale Zaharra 2-4), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Epeko azken eguna laneguna ez denean, lehenengo lanegunera arte luzatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidea behar bezala beteta egongo ez balitz edo daturen bat edo aipatutako agiriren bat aurkeztu ez balitz, 10 laneguneko epean gabeziak zuzendu ditzala eskatuko zaio eskatzaileari. Gainera, hori egin ezean eskabidea ezetsiko zaiola adieraziko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera ebazpena eman ostean.

Kasu zehatz bakoitzean, Urduñako Udalak egokitzat jotzen duen beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Hala badagokio, eskatzaileak derrigorrean aurkeztu beharko du, bere eskabidea izapidetzea nahi badu. Eskatzaile horrek agiriak zehaztutako epean aurkeztuko ez balitu, eskabidea ezetsiko zaio, eta artxibatu egingo da kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

9. artikulua.- Azterketa, ebazpena eta organo eskudunak

Eskabide guztiak jasotakoan, Gizarte Politiken Saila prozedurak bideratzen hasiko da, eta, beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz, ebazpen-proposamena egiteko orduan kontuan hartu beharreko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeke. Horrez gain, eskatzaileari eskatu ahal izango dio prozedura izapidetzeko eta ebazteko beharrezkoak diren datu, agiri osagarri eta argibide guztiak aurkeztu ditzala.

Edozein kasutan, ez dira deialdian zehaztutako epetik kanpo aurkezten diren eskabideak izapidetuko, eskabideok ez onartzeko ebazpena emango da eta artxibatu egingo dira.

Zerbitzua emateko edo ukatzeko ebazpena Alkatetzaren Dekretuaren bidez emango da, eta, hala badagokio, zerbitzua zergatik ukatu den adierazi beharko da bertan. Bestela, ebazpena aldekoa bada, laguntzaren baldintzak zehaztuko dira bertan, hau da, esleitutako orduak.

Zerbitzua eman edo ukatu egin dela adierazten duen ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, izapidetzeko asmoz eskabidea organo eskudunaren erregistroan sartu osteko hurrengo egunetik hasita.

Epe hori igarotakoan berriazko ebazpenik eta jakinarazpenik ez balego, eskabidea isiltasun administratiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Nolanahi ere, berriazko ebazpena eman ahal izango da geroago.

Oinarri hauen babespean ematen diren berriazko edo ustezko ebazpenek bide administratiboa agortuko dute, eta haien aurkako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira: batetik, aukerako berraztertze-errekurtsioa, ebazpenak eman zituen organo beraren aurrean, ebazpena jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, berriazkoa izango balitz, edo edozein unetan, ustezko egintza gertatu osteko hurrengo egunetik aurrera; eta, bestetik, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, kasuan kasuko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita bi hileko epean, berriazkoa izango balitz, edo sei hileko epean, ustezko egintza gertatu osteko hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertze errekurtsioa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu harik eta berriaz ebazten den arte edo errekurtsio horren ustezko ezespina gertatzen den arte.

10. artikulua.- Kontrola

Organo emakida-emaileak egokitzen dituen kontrol administratiboak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, gauzako laguntza jasotzeko eskakizunak bete egiten direla egiaztatu ahal izateko.

Hona hemen onuradunaren betebeharrak:

- a) Organo eskudunei behar besteko informazio guztia ematea, esleitutako laguntzaren helburua bete egiten dela ziurtatzeko.
- b) Laguntza bera emandako helbururako erabiltzea.
- c) Laguntza emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzetan gertatutako edozein aldaketaren berri ematea.

11. artikulua.- Zerbitzuaren jardunbidea

Espezieko laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, emandako ordui dagozkien txartelak bidaliko dira, bai eta zerbitzua emango duen enpresaren telefono-zenbakia eta harremanetarako pertsona ere. Laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera, familiaren atsedeen-zerbitzua erabiltzen hasi ahal izango da 2026ko abenduaren 31ra arte.

Onuradunak zuzenean jarriko dira harremanetan zerbitzua ematen duen erakundearekin, zerbitzua zein egunetan eta ordutan ematea nahi duten zehazteko.

Txartel bakoitza ordubeteko zerbitzuari dagokio, eta ezin izango da iraupen laburragoko zerbitzurik egin.

Txartelak asteleheneetik igandera erabili ahal izango dira, jaiegunak barne, 8: 00etatik 22:00etara.

Etxeko atsedeen-zerbitzu bakoitza amaitutakoan, zerbitzu hori ematen duen enpresari edo pertsonari jasotako laguntza-orduei dagozkien txartelak emango zaizkio, eta egun eta zerbitzu-ordu horietan bertan adieraziko dira.

Baliogabetzeak gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko zaizkio zerbitzua ematen duen erakundeari.

12. Artikulua.- Jarraipena eta gainbegiratzea.

Gizarte Ongizateko Arloak egingo du zerbitzuaren jarraipena, eta hura aldatzea, etetea edo baliogabetzea proposatu ahal izango du.

Zerbitzua eten ahal izango da honako kasu hauetan:

- mendekotasuna eta/edo zaintzailea duen pertsonak larriki aldatzen badu zerbitzuaren funtzionamendu normala.
- mendekotasuna eta/edo zaintzailea duen pertsonak zerbitzua ematen duten langileekiko errespetu-faltak daudenean.
- zerbitzua behar ez bezala erabiltzen denean.

Alkatetzaren dekretu bidez hartuko da, Gizarte Ongizateko Arloak txostena egin ondoren, 4 txartel itzultzeko ohartarazpen-neurri gisa, hilabeteko epean, hala erabakitzen duen ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean itzultzen ez badira edo egoera zuzentzen edo errepikatzen ez bada, oinarri arautzaile hauen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da.

13. artikulua.- Laguntza indarrik gabe uztea eta itzultzea

1.- Laguntza honako kasu hauetan ezeztatu ahal izango da, besteak beste:

- a) Laguntza honen onuradunak eskatuta.
- b) Mendekotasuna duen pertsona hiltzen bada.
- c) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona egoitza-zentro iraunkor batean sartzea.
- d) Laguntza ematea eragin zuen beharrian-egoera desagertzea.
- e) Dirulaguntzaren helburua behin eta berriz ez betetzea, edo dirulaguntza emateko oinarritzat hartzen den jokabidea ez hartzea, ezta horren ondoriozko betebeharrak ere, arrazoi justifikaturik gabe.
- f) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ohiko jokabideak zerbitzuari dagozkion zereginak egitea eragozten duenean.
- g) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hura lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatzuz.
- h) Egiaztapen- eta kontrol-jarduketei aurka egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea behin eta berriz.

2.- a), b), c) eta d) idatz-zatietan jasotako kasuetan, gauzako laguntza **indarrik gabe uzteko** espedientea irekiko da.

Gauzako laguntza ezeztatzeko espedientea ofizioz hasi ahal izango du onuradunak, edo, bestela, apartatu honetan aurrez adierazitako edozein inguruabar jakinarazi ondoren.

Paragrafo honetan aurreikusitako edozein zirkunstantzia Gizarte Ongizateko Arloari jakinarazteko gehieneko epea 15 egunekoa izango da, hori eragin duen gertakaria gertatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori betetzen ez bada, ofizioz izapidetuko da itzulketa-espediente bat, artikulua honen 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, Urduñako Udalak gertakariaren berri izan ondoren.



Gauzazko laguntza baliogabetzeko ebazpena Alkatetzaren Dekretu bidez emango da, Gizarte Ongizateko Arloak txostena egin ondoren, eta laguntzaren onuradunak ordura arte erabili ez diren txartel guztiak itzultzeko gehieneko epea adieraziko da.

Itzultzeko gehieneko epea hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Dirulaguntza ezeztatzeko espedienteak izapidetzean, bermatu egingo da, nolahi ere, onuradunak entzuna izateko eta bere jardura defendatzeko egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko duen eskubidea.

3.- e), f), g) eta h) letretan jasotako kasuetan, gauzazko laguntza ezeztatzeko eta itzultzeko espediente bat irekiko da ofizioz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Gauzazko Laguntzari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Gauzazko laguntza ezeztatzeko eta itzultzeko ebazpena Alkatetzaren dekretu bidez emango da, Gizarte Ongizateko Arloak txostena egin ondoren. Txosten horretan laguntza ezeztatzeko eta itzultzeko arrazoiak adieraziko dira, baita ordura arte erabili ez diren txartelak itzultzeko epea ere, balerik balego.

Gauzazko laguntzaren onuradunak itzuli beharreko zenbatekoa udalak ordura arte emandako zerbitzuengatik ordaindutako kostuaren baliokidea da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 3.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Betetzen ez bada, premiamendu-bidez kobratuko da.

Emandako zerbitzuaren balioari dagozkion zenbatekoak eskatzeak, nolahi ere, berandutze-interesak sortuko ditu, ematen diren egunetik diru-sarrera bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte.

Sartu beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreretat hartuko dira, eta legez ezarritako prerrogatiben eta prozeduren arabera kobratu ahal izango dira.

Itzulketa-espedienteak alde batera utzi gabe, udalak zehapen-espedienteak hasi ahal izango dizkie onuradunei, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

14. artikulua.- Laguntza benetan erabiltzea

1. Onuradunek behar bezala erabili beharko dituzte emandako txartelak.
2. Oinarri hauen ondorioetarako, behin eta berriz ez erabiltzetzat joko da erabilera-aldiaren barruan emandako baleen % 50 gutxienez erabiltzen ez denean, behar bezala justifikatutako arrazoirik ez badago.
3. Justifikaziorik gabe ez erabiltzea kontuan hartu ahal izango da programaren etorkizuneko deialdietan, laguntzaren intentsitatea edo laguntza ematea zehazteko.
4. Neurri hori ez da aplikatuko ez erabiltzeko arrazoi justifikatuak badaude, hala nola:
 - ospitaleratzea
 - osasun-egoerak okerrera egin du (txosten medikoen bidez egiaztatuta)
 - egoitza-zentroan aldi baterako sartzea
 - gerora sortutako familia-inguruabarrak.

15. artikulua.- Erabili gabeko txartelak itzultzea

2027ko urtarrilaren 15a baino lehen, onuradunek erabili gabeko txartelak itzuli beharko dizkiote Gizarte Ongizateko Arloari 2026ko abenduaren 31n, eta ez erabiltzeko arrazoiak adierazi.

16. artikulua.- Zabalkundea

Oinarri hauek eta horien deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, bai eta udalaren webgunean (www.urduña.com), Udalaren iragarki-oholetan eta ZIKOINA udal-aldizkarian ere, ahalik eta hedapen handiena bilatuz une oro.

17. artikulua.- Gardentasuna

1. Bat etorri Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 17.3 artikuluekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, agindu honen babesean emandako laguntzak ez dira argitaratuko, arau horietan aurreikusitako salbuespen-kasuetako bat direlako.

2. Gardentasunari eta gobernu onari buruzko urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzen onuradun diren pertsona fisiko eta juridikoak behartuta daude urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 3.1 artikuluan aurreikusitako Administrazioari, organismoari edo erakundeari – zeinari lotuta baitaude – lege horren I. tituluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia ematera, aldezturik hala eskatuta.

18. artikulua.- Datuen babesa

Laguntza hauek izapidetzean jasotako datu pertsonalak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren eta Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoaren arabera tratatuko dira, laguntzak emateko prozedura kudeatzeko.

19. artikulua.- Aurkaratzea

Deialdi hau onartzen duen ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo administrazio-isiltasunez ezetsi arte. Hala ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

20. artikulua.- Araudia

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta indarrean dagoen gainerako administrazio-araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera interpretatuko da.



Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuko Teknikaria